

Merkatartitza elektronikoak haziz jarraitu du 2009an euskal enpresetan, batez ere erosketen aldetik

Merkatartitza elektronikoa egiten duten euskal enpresen kopuruak egonkor dira, %14,9 2009an

Euskal AEko merkatartitza elektronikoak haziz darrai zifra ekonomikoetan, aritzen diren enpresa kopuruak egonkor (-0,1 puntu) badirau ere, Eustaten datuen arabera. 2009an sarearen edo bestelako sistema elektronikoen (e-maila, EDI, datu-truke elektronikoa, etab.) bidez sortutako negozio-bolumena 7.401,8 milioi eurora iritsi zen salmentetan, eta 4.626,4ra erosketetan.

Zifra horien arabera, aurreko urtearen aldean %3,4 gehitu ziren Euskal AEko enpresetan merkatartitza elektronikoaren bidez egindako salmentak; egindako erosketak, berriz, %34,0 gehitu ziren.

1. taula: Merkatartitza elektroniko bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2008	2009	Δ 09/08	2008	2009	Δ 09/08
Euskal AE	3.452,4	4.626,4	34,0	7.157,0	7.401,8	3,4
Lurralde historikoa						
Araba	711,4	713,1	0,2	3.169,8	2.742,1	-13,5
Bizkaia	1.873,2	2.564,6	36,9	2.456,4	2.635,7	7,3
Gipuzkoa	867,8	1.348,7	55,4	1.530,8	2.024,0	32,2
Enplegu-geruza						
0 - 9	1.010,5	1.725,2	70,7	652,1	1.096,7	68,2
≥ 10	2.441,9	2.901,2	18,8	6.504,9	6.305,1	-3,1

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Balio absolutuetan, erosketetan Bizkaia nabarmentzen da; salmentetan Araba oraindik ere, nahiz eta bertako enpresa nagusiren batean beherakada izan, eta Bizkaia. Establezimenduen tamainari erreparatuta, 10 enplegatu edo gehiagokoek lortu zituzten emaitza nagusiak merkatartitza elektronikoaren erabileran.

Merkatartitza elektronikoa egiten duten Euskal AEko enpresak: %14,9 da, 2009an ehuneko 0,1 puntuz murriztu delarik. Proporzio horren osagai nagusia erosketak egiten dituzten enpresak dira, %13,8; salmentak egiten dituztenak dezente gutxiago dira, %3,4.

Zifra ekonomikoetan salmenta elektronikoena erosketenaren oso gainetik dago, baina bide elektronikoetatik erosten duten enpresak saltzen dutenak baino askoz gehiago dira.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira								
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	26,9	32,5
10 langile edo gehiago									
Salerosketa elektronikoa	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7
Erosketak	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2
Salmentak	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3
Salmenten gaineko (*)	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2


(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Egindako kalkuluen arabera, 29.000 inguru dira Euskal AEn merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak. Establezimendu horiek bide horretatik egiten dituzten erosketak guztizkoaren %24,9 hartzen dute eta salmentek, guztizko salmenten %32,5.

Zifra hauek aldatu egiten dira enpresen tamaina kontuan hartuz gero. Horrela, 10 langile edo gehiagokoek, %23,7k egiten dute merkataritza elektronikoa; aurreko urtearen aldean ehuneko 1,5 puntuz hazi da. Segmentu honetan ere, erosketak egiten dituztenak askoz gehiago dira, %20,2; izan ere, salmenta egileak %8,0 dira.

1. grafikoa: 2009ko salmenta elektronikoa, erabilitako bitartekoaren arabera (%)




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Salmenta elektronikoa horiek egiteko erabili den bitartekoari dagokionez, %38,3 bakoitzaren web orritik, %40,3 posta elektronikoz (e-mail) eta gainerako %21,4 EDI eta beste sare batzuen bidez egin dira. Salmentak horrela egin dira: %43,6 EDI eta beste sare batzuen bidez, %26,0 e-mailez eta %30,4 web orriaren bidez

2009an merkataritza elektronikoa bidez egindako salmenten bezero-motari dagokionez, salmenta guztien %82,3 beste enpresa batzuetara saldu zen (B2B deritzon merkataritza), %17,0 kontsumitzaile partikularrei (B2C) eta gainerako %0,7ak bestelako helburuak izan zituen, esaterako, administrazio publikoak (B2G).

2. grafikoa: 2009ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Ohar metodologikoa: INFORMAZIOAREN GIZARTEARI BURUZKO INKESTA (IGI)-Enpresak 2010eko datuak argitaratzeko, EUSTATEk **Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Berria (JESN 2009)** erabiltzen du. 2008ra arte argitaratutako merkataritza elektronikoen datuek (IGI-Enpresak 2001-2009) JESN-93 erabiltzen zuten. Orain dibisio berriak sortu dira jarduera ekonomikoen sailkapenean, zeinak argitaratutako tauletan azaltzen diren; xehatze hauek ez dira aurreko urteetakoekin alderagarriak.

[Jardueren Sailkapenak JESN-93 eta JESN-2009](#)

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tel:+34-945-01 75 96 Faxe:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); datu-bankua